

Azaroaren 30a izango da azken eguna Etxepare Euskal Institutuak bere irakurletzen artean antolatu duen uneko edo bat-bateko argazki lehiaketara argazkiak aurkezteko.

Etxepare Euskal Institutuaren irakurletzak munduan.

Abenduaren 3an Euskararen Nazioarteko Eguna (ENE) dela-eta Facebook bidez antolatutako lehiaketa da “Etxepare Munduan”. Bertan, Institutuarekin lankidetzan ari diren euskara eta euskal kultura irakasten duten irakurleek eta horien ikasleek parte har dezakete euren argazkiak bidalita.

Hasiera batean argazkiak bidaltzeko epea azaroaren 19an amaitzen zen, baina arazo teknikoak medio, epe hori azaroaren 30era luzatzea erabaki da. Abenduaren 3an, berriz, bozketarako aplikazioa abian jarriko da Institutuaren Facebookeko orrialde ezberdinetan (euskarra – gaztelania – ingelesa). Abenduaren 9rarte izango du jendeak argazkiak bozkatzeko aukera eta ondoren, institutuko epai-mahai batek gustukoen duena aukeratuko du, bozka gehien jasotzen dituzten 5 argazkien artean.

Lehiaketa irabazten duen ikaslea zein haren euskara eta euskal kultura irakaslea izango dira saridunak. Lehenak, datorren udaran euskara ikastaro trinko bat egiteko aukera jasoko du. Haien izenak abenduaren 10ean emango dira jakitera.

Euskararen eta euskal kulturaren nazioarte mailako ezagutza eta prestigioa sustatzeko jarduera nagusietako bat euskara eta euskal kultura irakurletza programak martxan jartzea da, mundu guztiko unibertsitarioek aipatu gaiak ikas ahal izan ditzaten.

2012-2013 ikasturtean Etxepare Euskal Institutuaren irakurleen sarea indartu egin da, sareari honako unibertsitate berriak gehituz: University of Szeged (Hungaria), Eötvös Loránd University (Hungaria), Università Ca' Foscari di Venezia (Italia), Alma Mater Studiorum Università di Bologna (Italia), Leipzig Universität (Alemania) eta Université de Pau et des Pays de L'Adour (Frantzia).

Hala, une honetan Etxepare Euskal Institutuaren euskara eta euskal kulturaren irakurleek (irakasleek) osatzen duten sarea 15 herrialdetako 38 unibertsitatetara iristen da. Zerrenda osoa.

Horrez gain, Institutuak Euskal Ikasketen Katedrak sortu ditu munduko 3 unibertsitate esanguratsutan: 2011-2012 ikasturtean abian jarri ziren Bernardo Atxaga Katedra City University of New York (CUNY) unibertsitatean eta Chicagoko Unibertsitateko Koldo Mitxelena Katedra, eta aurten Alemaniako Frankfurteko Goethe Unibertsitatean zabalduko den Eduardo Chillida Katedra.

El día 30 de noviembre finalizará el plazo para mandar las fotos al concurso de instantáneas organizado por el Instituto Vasco Etxepare.

Lectorados del Instituto Vasco Etxepare en el mundo.

Con motivo de la celebración del Día Mundial del Euskera el 3 de diciembre, el Instituto Vasco Etxepare ha organizado, entre otras actividades, un concurso de instantáneas a través de las redes sociales entre los lectorados de las 38 universidades de 15 países con las que colabora. 'Etxepare en el mundo' está dirigido tanto a profesores (lectores) como a alumnos de los diferentes lectorados de lengua y cultura vasca que componen la red del Instituto.

En un principio el plazo de entrega de imágenes finalizaba el día 19 de noviembre pero debido a problemas técnicos este plazo se ha alargado hasta el día 30 del mismo mes. A partir del 3 de diciembre se activará la votación popular en las páginas de Facebook del Instituto (eusker – castellano – inglés) que se alargará hasta el día 9 de diciembre. Un jurado del Instituto Vasco Etxepare escogerá después la imagen ganadora de entre las cinco instantáneas más votadas.

Los premios, que se darán a conocer el 10 de diciembre e irán destinados tanto al alumno ganador del concurso –que será agraciado con un curso intensivo de euskera durante el verano- como al lector de euskera y cultura vascas de la universidad donde estudia.

Una de las principales actividades del Instituto Vasco Etxepare para el fomento del conocimiento internacional y el prestigio del euskera y la cultura vasca es el programa de lectorados y cátedras de lengua y cultura vascas, que permiten su estudio a universitarios de todo el mundo.

La red de lectores del Instituto Vasco Etxepare se extiende en la actualidad a 38 universidades de 15 países diferentes. Los programas de lectorado más recientes han echado a andar este mismo curso (2012-2013) en los siguientes centros: University of Szeged (Hungría), Eötvös Loránd University (Hungría), Università Ca' Foscari di Venezia (Italia), Alma Mater Studiorum Università di Bologna (Italia), Leipzig Universität (Alemania), y Université de Pau et des Pays de L'Adour (Francia). Lista completa.

El Instituto cuenta además con dos cátedras de estudios vascos: la Cátedra Bernardo Atxaga en la City University of New York (CUNY) y la Cátedra Koldo Mitxelena en la Universidad de Chicago, a las que en breve se incorporará una tercera: la Cátedra Eduardo Chillida en la Universidad Goethe de Frankfurt (Alemania).

2012-11-13 The 3rd of December is the International Day of The Basque Language (ENE). That is one of the reasons why Etxepare Basque Institute has organized a photography competition in the social network for the university readers that are around 15 countries.

This competition is focussed on university readers and students that participate in the network of the Institution. Many participants have submitted their photographs; nonetheless, the deadline has been extended to November 30th.

We will create in our Facebook pages a voter registration application in Basque, Spanish and English for the 3rd of December and people will have the opportunity to vote their favourite photos until the 9th of December.

The Etxepare Basque Institute jury will choose the winner among the top five vote getters.

The prize (An intensive Basque course during the summer) will be for the winner student and their Basque and Culture University reader. Their names will be published online on Monday, the 10th of December.

The Etxepare Basque Institute is an ambassador of our language and culture abroad, and encourages the international diffusion of the Basque language.

This year, the university readers program has been spread to new universities around the Word: University of Szeged (Hungria), Eötvös Loránd University (Hungria), Universitá Ca' Foscari di Venezia (Italia), Alma Mater Studiorum Universitá di Bologna (Italia), Leipzig Universität (Alemania), y Université de Pau et des Pays de L'Adour (Francia). The list of all Universities

The Institute is also in charge of two Chairs: Bernardo Atxaga Chair at City University of New York (CUNY) and Koldo Mitxelena Chair at Chicago University. Soon, a third Chair will be added: Eduardo Chillida Chair at the Goethe University Frankfurt.

More information: <http://www.etxepareinstitutua.net/>